



ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

**50 URTE**  
**AÑOS**  
1968 - 2018  
**Biba Zientzia!**  
Ciencia Viva

**Laburpena**  
Resumen

# KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA INFORME Y PLAN DE GESTIÓN

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología

[www.ehu.eus/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea](http://www.ehu.eus/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea)

**2024/2025**



## **AURKIBIDEA**

AURKEZPENA	1
FAKULTATEKO PROZESUEN MAPA ETA TITULUAK	2
ESTRATEGIA ETA KALITATE POLITIKA	3
PROZESUEN BERRIKUSKETA	5
EMAITZA NAGUSIAK	9
GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK	9
MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK	11
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK	12
EKINTZAK	12
2024/25 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK	12
2025/26 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK	13



## AURKEZPENA

Txosten honetan 2024/2025 ikasturtean EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean gauzatu diren ekintzak eta lortutako emaitzak aurkezten dira. Halaber, Hobekuntzarako plana zehazten da hari ekiteko eta 2024/2025 ikasturtean martxan jarri den 2024-2028ko Plan Estrategikoaren urteko jarraipena egin da. Aldi estrategiko berri horren hasierak berekin ekarri du ekintza estrategikoak lehenestea, premiazkoenak gauzatzeko eta ikastetxearen kalitate-politika berrikusteko, Planarekin lerrokatuta gera dadin. Planaren lehenengo urte honetan, bere bost ardatzetan aurrerapen orekatu bat adierazi da: prestakuntza, ikerkuntza, transferentzia, pertsonak eta kudeaketa, % 26'92ko betetze-maila orokorrarekin. Bereziki 4. ardatzean Pertsonak (% 41,25) eta 3. ardatzean Transferentzia (% 30) egindako aurrerapenak nabarmentzen dira.

Irakaskuntza-proiektuarekin lotuta, ekintzak bultzatu dira:

1. Irakaskuntza eleaniztuna bultzatzeko, euskaraz ematen diren hautazko irakasgaien kopurua handituz.
2. Gradu eta graduondokoen eskaintza eguneratzeko, graduondoko titulu propio berri bat eskainiz eta masterreko bi titulazio diseinatuz.
3. Zeharkako gaitasunak indartzeko, ikasleei zuzendutako GIHei buruzko tailer berriak antolatuz.

Gure batxilergoko ikasleriarentzat erakargarriak izaten jarraitzen dute, orokorrean eskaintzen diren plazak bokaziozko ikasleengandik betetzen direlako. Gainera, orokorrean sartzeko batz besteko nota ona izaten dute, 12tik gertukoa 14 puntutik. Beren profila aproposa da eta hori ikaskuntza-adierazleen emaitza onetan ikus daiteke. Halaber, ingurune sozialak ikasleriak jasotzen duen prestakuntza asko baloratzen du, enplegutasek oso balio onak dituztelako eta oso enplegu egokia dutelako. Gainera, enpresekiko lankidetzaren praktiken bitartez eta GRaL/MALak eginez sendotzen da eta ikasleek mugikortasun-programetan parte hartzeko interesa izaten dute. Bestalde, masterretako matrikulak mantendu egin dira, 2023-2024 ikasturtean igoera sendotuz, eskaintzaren zabalkundean eta aurreinskripzio prozesuan eginiko hobekuntzei esker. Bestetik, Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko II. Jardunaldiaren antolakuntzak (oso parte-hartze ona izan zuen) eta Docentiazek ebaluatutako IRiren ehunekoaren igoerak agerian uzten dute langileek kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko duten konpromisoa.

Ikerkuntzan, IX. Ikerkuntza Jardunaldiak eta ikerkuntzaren ikusgarritasunarekin zerikusia duten eta Fakultatean egiten diren bestelako ekimenek, ikerkuntza taldeen lotura hobetu dute, ikasleria jarduera zientifikora hurbilduz. EHUk Shangaiiko rankingean Ingeniaritza Kimikoan eta Kimikan duen posizio onak, bi diziplinetan Estatuko lehen unibertsitate gisa kokatzen dute. Gainera, IIPeren proiektuen ratioa, beren argitalpenen batez besteko inpaktuak eta zuzendutako tesien kopuruak indartu egiten dute EHUren barruan ikerkuntzako Fakultatearen lidergo-posizioa.

2024/25 ikasturtean, EPETik eratorritako TEKAZELak etengabe sartu dira kolektibo horrentzat. Egoera horrek agerian utzi du oso garrantzitsua dela langile berriei harrera pertsonalizatua egitea eta, horrela, errazago egokituko dira beren lanpostura.

Azkenik, Oihartzuna albiste-buletinaren eta beste ekintza batzuen bidez zentroaren jarduera hedapena indartu da; hala nola, AECCk EHUra egindako bisitaren parte-hartzea, edo Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa gela berri bat irekitzeko kudeaketak egitea.


2025/2026 ikasturterako erronka gisa, honakoak daude:

1. Graduak titulazioen ikasketa-plan berriak konfiguratzeko.
2. Estrategia berriak ezartzeko, sartzeko diren mugikortasun-ikasleak erakartzeko.
3. Graduaren hautazkotasuna aztertzea, Euskara eta Hizkuntza Plangintzako Errektoreordetzaren irizpide berrietan oinarrituta.

# FAKULTATEKO PROZESUEN MAPA ETA TITULUAK

## PROZESUEN MAPA

Zientzia eta Teknologia Fakultateak prozesukako gestioaren arabera jarduten du, eta Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) jarraitzen du irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, ezagutza-transferentziaren eta kudeaketaren arloetan egiten dituen jarduera guztiek ahalik eta kalitate onena izan dezaten.



## TITULU OFIZIALAK

### GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (FIE)  
Biologiako Gradua (B)  
Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua (BKBM)  
Bioteknologiako Gradua (BT)  
Fisikako Gradua (FIS)  
Geologiako Gradua (GEO)  
Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (IE)  
Ingeniaritza Kimikoko Gradua (IK)  
Kimikako Gradua (KIM)  
Matematikako Gradua (MAT)

### GRADUONDOAK

Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Erasmus Mundus Masterra (EMECT+)  
Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra (EMMER)  
Itsas Baliabide Biologikoak Erasmus Mundus Masterra (EMIMBRSea)  
Mikrouhin Elektronikoko eta Fotonikaren Industriadun Erasmus Mundus Masterra (EMEMIMEP)  
Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra (MBF)  
Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra (MBM)  
Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra (MIQ)  
Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra (MAA)  
Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra (MCTA)

Kimika Sintetiko eta Industrialia Unibertsitate Arteko Masterra (MQS)  
 Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra (MNM)  
 Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra (MM)  
 Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra (MCTC)

## ESTRATEGIA ETA KALITATE POLITIKA

2024/25 ikasturteko lehenengo lauhilekoan, Fakultateko 2024-2028 Plan Estrategikoa onartu zen. Bere lanketan, Zentro barruko nahiz kanpoko interesatutako talde guztiek parte hartu zuten. Indarrean egon den lehenengo urte honetan, hasierako fasearen denboraldian aurrerapen egokia eman da. Ardatz desberdinek garapen-maila orekatua erakusten dute, eta aurrerapen bereziki esanguratsuak egiten dituzte pertsonen esparruan eta kudeaketaren hobekuntzan.

1. Ardatzean (Formakuntza) irakaskuntza eleaniztuna bultzatzeko eta irakaskuntza-eskaintza eguneratzeko jarduerak egin dira, bertan graduondoko titulazio berriak eta etengabeko prestakuntzako ikastaro bat diseinatzea barne hartuz. Halaber, ikasleriaren zeharkako gaitasunak indartzeko jarduerak gehitu dira. Aurrerapen horiek eskaintza akademikoaren ondorengo bilakaerarako planifikazio egokia islatzen dute.

2. Ardatzean (Ikerkuntza) ikerketa-taldeak arteko elkarrekintza eta ikaslea ikastetxeko lan-ildoetara hurbiltzea errazten duten jardunaldiak eta jarduerak egitea bultzatu da. Horretarako, datozen ikasturteetan irakaskuntzaren eta ikerketaren arteko integrazio-maila handiagoa lortzeko eremua prestatzen ari dira.

3. Ardatzean (Transferentzia) erakundearen ikusgarritasuna indartu da, sare sozialetan jarduerak sistematikoki zabalduz eta inguruko enpresa eta erakundeekin elkartzeko guneak sortuz, zentroak gizartearekiko duen proiektzioa sendotuz.

4. Ardatzak (Pertsonak) aurrerapen mailarik handiena erakusten du, eta honakoak nabarmentzen dira: i) Langileentzako harrera-prozesuak eguneratzea eta hobetzea, ii) Fakultateko ekimenetan ikasleriaren eta langileriaren parte-hartzea sustatzea, iii) Berariazko formakuntza ekintzak martxan jartzea. Ekintza horiek barne-kohesioa eta lanerako eta ikasketarako ingurunearen kalitatea sendotzen dituzte.

5. Ardatzean (Kudeaketa) hobekuntzak egin dira irakaskuntza plangintzan eta idazkaritzako tramiteetan. Azkeneko honi dagokionez, emaitzak ikusi dira prozesuen arintzean eta ikasleriarekiko harreraren optimizazioan. Halaber, azpiegituren hobekuntzarekin zerikusia duten lehenengo azterketak eta ekintzak egin dira.

Oro har, 2024/25 ikasturtean lortutako betetze-mailak datozen urteetan Plan Estrategikoa garatzen jarraitzeko oinarri solidoak jartzen ditu. Horrek, lorpenak sendotzea eta etorkizuneko jarduerak ezarritako helburuetara bideratzea ahalbidetzen du. Azkenik, bi doikuntza egin dira adierazleen definizioetan, honakoetan hain zuzen ere: HE.3.1. Gizartean ikastegiko ikerkuntza, irakaskuntza eta transferentzia hedatzea eta HE.4.4. Euskararen erabilera sustatzea. HE.3.1aren aurrerakuntza neurtzeko, *Sare sozialen bidez hedatutako albisteen elkarreragin-kopurua* adierazlearen ordez, *Fakultateko sare sozialetako jarraitzaileen guztizko kopurua* adierazlea ezarri da. HE.4.4rako, aldiz, *Fakultatean euskara sustatzeko eta erabiltzeko jarduera-kopurua* adierazlearen ordez, *Euskarazko jardueren kopurua* jartzea erabaki da.

Azkenik, Plan berria sartzearekin batera, Fakultatearen kalitate-politika berrikusi da eta haren baliozkotasuna eta Zentroan indarrean dagoen estrategiarekin bat etortzea erabaki da.

Plan Estrategikoa 2024/25 ikasturtean egindako aurrerapenaren berri emateko, plana indarrean egon den lehenengo urte honetan lortutako betetze-maila aurkeztu da helburu estrategiko bakoitzerako.

### 1. Ardatza: Prestakuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	IKASTURTEA	B.M.
HE.1.1. Ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza-eleaniztuna ezartzea	2024/25	% 15
HE.1.2. Graduonko eta graduondoko irakaskuntza-eskaintza eguneratzea	2024/25	% 20
HE.1.3. Ikasleen prestakuntza sendotzea zeharkako gaitasunetan (soft skills)	2024/25	% 25

### 2. Ardatza: Ikerkuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	IKASTURTEA	B.M.
HE.2.1. Diziplina ugariren bateratzea sustatzea ikerketa-taldeen artean	2024/25	% 25
HE.2.2. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arteko elkarreragina hobetzea	2024/25	% 15

### 3. Ardatza: Transferentzia

HELBURU ESTRATEGIKOA	IKASTURTEA	B.M.
HE.3.1. Gizartean ikastegiko ikerkuntza, irakaskuntza eta transferentzia hedatzea	2024/25	% 30
HE.3.2. Inguruko enpresekin eta erakundeekin harremanak sustatzea	2024/25	% 30

### 4. Ardatza: Pertsonak


HELBURU ESTRATEGIKOA	IKASTURTEA	B.M.
HE.4.1. Ikastegiko langileei egiten zaien harrera hobetzea	2024/25	% 50
HE.4.2. Ikasleen eta langileen partaidetza sustatzea fakultatearentzat interesgarriak izan daitezkeen proiektuetan	2024/25	% 50
HE.4.3. Ikastegiko langileentzako prestakuntza-programa espezifiko bat ezartzea	2024/25	% 40
HE.4.4. Euskararen erabilera sustatzea	2024/25	% 25

### 5. Ardatza: Kudeaketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	IKASTURTEA	B.M.
HE.5.1. Ikastegiko irakaskuntzaren plangintza optimizatzea	2024/25	% 10
HE.5.2. Ikasleentzat idazkaritzako izapideak optimizatzea	2024/25	% 40
HE.5.3. Ikastegiko instalazioak mantentzea eta hobetzea	2024/25	% 20

## 2024-2028 Plan Estrategikoaren betetzea

■ 2024/25



1. grafikoa: 2024-2028 Plan Estrategikoaren helburu estrategikoen betetze-maila, ardatz estrategikoen arabera multzokatuta

**Oharra:** Plan Estrategikoaren betetze-maila ardatzen arabera kalkulatzeko, 2024/25 ikasturtean ardatz bakoitzaren helburu estrategikoen betetze-mailaren batez besteko aritmetikoa hartu da kontuan.

## PROZESUEN BERRIKUSKETA

### 1. PROZESUA. PLANGINTZA.

2024/25 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan bereizten diren bi ekintzak akreditazio instituzionalaren berritzea onartzen den Ministerioaren ebazpenarekin dute zerikusia, eta horrek Zentroko KBBS-ren heldutasuna erakusten du, eta baita 2024-2028 Plan Estrategiko berriaren onespena. Planaren lanketan Zentroko barnealdeko nahiz kanpoko interes-taldeek parte hartu zuten, eta AMIA analisi bat egin zuten, zeinaren arabera hamalau helburu zehaztu ziren, bost ardatz estrategiko kokatu ziren: prestakuntza, ikerkuntza, transferentzia, pertsonak eta kudeaketa. Plana behin onartuta, aipatutako helburu horiei lotutako ekintzei lehentasuna eman zitzaien eta berehala abian jarri ziren urgentziazko betetzea behar zuten horiek. Adibide bat jartzearren, graduondoko titulu berrien diseinuan lanean hasi gara.

Paraleloan, eta sistemaren koherentzia eta segimendua indartzeko helburuarekin, prozesuari lotutako adierazleen batera errebisatu zen. Errebisio horrek adierazleak eguneratzeko beharra egiaztatu zuen prestakuntzako ardatzerako helburu estrategiko berriekin lerrokatzeko, batez ere, titulazioen diseinuarekin zerikusia zutenak. Eraitza gisa, garrantzi gutxiko adierazleak ezabatu ziren eta adierazle berri bat sartu zen, jada aztertua zegoena 2024-2028 Plan Estrategikoan. Etengabeko hobekuntzaren hedatzeari dagokionez, aurreikusitakoekin alderatuta, amaitutako hobekuntza-ekintzen ratioa aurreko ikasturteetako mailaren antzekoa da. Horrek agerian uzten du betetze-mailaren egonkortasun positiboa, eta Zentroaren jardura bizia eta bere prozesuak etengabe hobetzeko konpromiso iraunkorra islatzen ditu.

2024/25 ikasturtea izan da, gainera, Paisaiaren Kudeaketaren Masterraren iraukitze prozesua martxan jarri den bigarren ikasturtea, ezarritako protokoloaren arabera eginik eta gertakari edo inzidentziarik gabe. Azkenik, Zentroko titulazioen eskaintzak gizartearen interesa pizten jarraitzen du, eta horrek bere sendotzean laguntzen du, nahiz eta inguruko garapenak titulazio berrien bideragarritasunean jarraitzea aholkatzen duen, batez ere graduondoko eremuan. Zentzu horretan, bideragarritasunarekin zerikusia duten bi azterketa egin dira; batetik, graduondoko eskaintza handitzeko adimen artifizialeko master berri baten bidez, eta, bestetik, Latinoamerikarekin lankidetzan.

Bestalde, enpresen Aurkezpen Jardunaldietara joaten diren enpresen kopuruak handia izaten jarraitzen du, eta horrek egitura enpresarialen lankidetzaren jarraipena islatzen du. Parte hartzeak ona izaten jarraitzen duen arren, uste da komenigarria izango litzatekeela parte hartzen duten erakundeen beheranzko joera aztertzea. Ikasleria, aldiz, orokorrean modu pozgarrian sartzen da lan merkatuan, enplegu-tasek erakusten dutenaren arabera. Hala ere, zenbait titulazioetan tasa horrek aurkezten dituen oszilazioak behatu beharko lirateke.

Azkenik, ikasleei zuzendutako zeharkako gaitasunen prestakuntza propioa sustatu da, harrera ona izan duten tailer eta solasaldien bitartez. Berdinen arteko Tutoretza Planaren orientazio-lanak programak erakargarria eta funtzionala izaten jarraitzen duela baieztatu du.

### 2. PROZESUA. GRADUA.

2024/25 ikasturtean zehar, Zentroko graduei eragiten dieten ez-funtsezkoak diren zazpi eraldaketa egin dira, batez ere ikasketa-planetako irakaskuntza-gidak eguneratzearekin lotutakoak, bai eta hobetzeko 34 ekintza ere. Halaber, aurreikuspenen arabera, funtsezkoak ez diren hamar aldaketa inguru egingo dira 2025/26 ikasturtean eta hurrengoetan zehar, eta graduak hobetzeko 56 ekintza berri egingo dira. Zifra horiek titulazioak etengabe hobetzera bideratutako jardura handia islatzen dute, bai Graduako Ikasketa Batzordeen aldetik, bai Dekano Taldearen ekimenez.

Hartze-ekintza egonkor eta ezarritako goiko mugatik hurbil mantentzen da. Oro har, adierazleek hartze-sistema sendoa erakusten dute, nahiz eta urtetik urtera aldaketak egon dira parte-hartze mailan.

Ikasle berrien profilak bikaina izaten jarraitzen du. Sarrerako batez besteko nota 12tik hurbil dago, eta ikasle gehienak batxilergotik datoz, aukeratutako titulazioekiko bokazio nabarmenekin. Zenbait gradutan sartzeko lehentasuna jaitsi den arren, ikasketen erakargarritasuna mantentzen da. Geografiako gradua salbuesten da, eskaintako plazak bete baitira.

Graduko ikasleen errendimendu tasa aurreko ikasturteetako maila berean mantentzen da, azkenengo lau urteetan erregistratutako datuekin alderatuz gero, pixka bat gorago kokatzen da. Ikasketa tasak ikasle berrien profilekin bat datoz.

Mugikortasuna egin duten ikasleen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta horrek agerian uzten du ikasleek interesa dutela beren prestakuntza EHUtik kanpoko erakundeetako esperientzia akademikoekin osatzeko. Hala ere, hona etortzen diren ikasleen kopuruak txikia izaten jarraitzen du kanpora joaten direnekin alderatzen badugu, eta horrek dinamika berriak edo nazioarteko ikasleei zuzendutako estrategia berriak ezarri behar direla esan nahi du. Dena den, kanpotik etortzen diren ikasleen aniztasun geografikoak erakusten du gure Zentroak maila globalean ikasleak erakartzeko gaitasuna duela. Orokorrean, Fakultateko nazioartekotze maila pozgarria da.

Enpresekin lankidetzan eginiko Gradu Amaierako Lanen kopuruak etengabe gora egin duenez, ikasleek gero eta interes handiagoa erakusten dute aplikatutako esperientziekin, eta kanpoko erakundeekin harreman erraza eta finkatua dute. Enpresa parte-hartzaileen sarea egonkorra, anitza eta aktiboa da, eta ikasleei praktikak ingurune errealean egiteko aukera bermatzen die.

Eskatutako curriculumetik kanpoko praktiken kopuruak gora egin izanak ikasleek etengabe eskatzen dutela erakusten du. Lanpostu hutsak dituzten curriculumetik kanpoko praktiken kopuru txikiak adierazten du eskaintza eta eskaria ezin hobeto egokitzen direla, eta praktiken eskaintza erakargarria eta benetako lanbide-profiletara egokituta dagoela. Hala ere, komenigarria litzateke aztertzea ea gurekin lan egiten duten enpresa-zorroko erakunde batzuek praktika-programan duten partaidetza murriztu duten edo ez.

### **3. PROZESUA. GRADUONDOKOA.**

Batzorde akademikoek masterreko titulazioen etengabeko hobekuntzarekin duten konpromisoa agerian geratzen da ezarritako eta proposatutako hobekuntza-ekintzen kopuruan eta izaeran. Ekintza horiek, orokorrean, titulazioen garapenari eta funtzionamenduari buruzko urteko azterketa- eta hausnarketa-prozesuaren ondorio dira.

Graduondokoen eskaintzen difusioaren sendotzeak emaitza positiboak erakusten ditu. Erasmus Mundus programakoak ez diren masterretako batez besteko okupazio maila 2024/25 ikasturtean % 85etik gora mantentzen da, eta horrek eskari iraunkorra erakusten du. Halaber, ikasketa-planetan txertatutako aldaketa batzuk, hala nola, Ingurugiroaren Agrobiologia Masterrean, beren okupazio-tasen bilakaera positiboa bultzatu dute. Modu berean, egiaztatzen da master batzuek erakargarritasun nabarmena dutela nazioartean, eta beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak erakartzen dituzte.

Kanpoko praktiketako kopurua erdi-mailan mantentzen da, aurreko ikasturtean izan ezik, zeinatan ohikoa dena baino kopuru handiagoa erregistratu zen. Praktika kurrikularren ugaritzeak jarduera horiek masterren prestakuntza-ibilbideetan behar bezala integratzea iradokitzen du.

Aurreko ikasturtean enpresetan eginiko Master Amaierako Lanak gehiago izan ziren arren, egungo kopuruak ere garrantzitsua izaten jarraitzen du. MALa enpresa-ingurune batean egitea beharrezkoa ez denez, datu horiek agerian uzten dute testuinguru profesionalarekiko lankidetzaren eraginkorra sendotu dela.

Komenigarria izango litzateke aurreko ikasturtean lortutako praktika extrakurrikularren maila ezinhobearen berreskuratzea. Hala ere, murrizketa hori hainbat arrazoiengatik izan liteke; esate baterako, eskuragarri dagoen eskaintzan aldaketak, ikasleen profilean aldaketak edota erakunde parte-hartzaileek prestasun txikiagoa erakustea.

### **4. PROZESUA. IKERKETA.**

Fakultateak ikerketa-profil sendoa eta prestakuntza-gaitasun handia sendotzen ditu, kalitatezko jardun zientifikoa eta doktorego-jarduera iraunkorra erakusten duten adierazleen laguntzaz. Fakultateko langileen artean, nazioartean ospe handia duten ikertzaileak daude, eta horiek urtez urte aipatuenean zerrendetan agertzen dira. Are gehiago, Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren arloetan, EHUk postu nabarmenak lortu ditu *Global Ranking of Academic Subjects* (Shangaiko rankinga, 2025eko edizioa) edo *Performance Ranking of Scientific Papers for World Universities* (NTU ranking-a) deiturikoetan, eta bi diziplinetarako estatuko lehen unibertsitatea da.

## **5. PROZESUA. GIZA BALIABIDEAK.**

Ikastetxeko egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatzeko helburuarekin, lehentasunezkoa da Irakasleak eta Ikertzaileak (IIP) behar bezala birjartzea. Paraleloan, eta zerbitzuen jarraitutasuna eta kalitatea babesteko, era berean garrantzitsutzat jotzen da teknikari eta administrari berrien (TEKAZEL) prestakuntza sendotzea, haien gaitasuna indartuz eta ikastetxeko prozeduretara egokituz.

Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da Fakultateko langileek prestakuntza-arloan izan duten inplikazio-maila IIPren eta TEKAZELen parte-hartze esanguratsuekin. Horrek agerian uzten du lanbide-eguneratzearekin eta hezkuntza-berrikuntzarekin konpromiso sendoa dagoela. Konpromiso hori islatzen da, halaber, zentroko jarduera akademikoan eta instituzionalean langileek duten lankidetzaren bizian, IIPek eta TEKAZELEk graduazio-ekitaldian eta ikastetxeko batzordeetan duten parte-hartzeak agerian uzten duten bezala.

Azkenik, egiaztatzen da dekanotza taldeko erreleboa pozgarri egin dela bereziki Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetzan, kudeaketaren jarraitutasunari eta dagokion alorreko funtzionamendu egokiari lagunduz.

## **6. PROZESUA. EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIOA.**

Zentroak aurrekontuaren kudeaketa orekatua mantentzen du, eta kantitate garrantzitsu bat irakasleen jarduerari zuzendua dago; horrela, garapen akademikorako eta ikasleen esperientzia hobetzeko behar den euskarri ekonomikoa bermatzen du.

Idazkaritzari dagokionez, 2024/25 ikasturtean zehar, eta 2019-2022ko Enplegu Publikorako Eskaintzatik (EPE) eratorritako aldaketan ondorio bezala, dekanotzako TEKAZEL taldearen zereginen berrantolaketa bat egin da. Berrantolaketa horrek sekzioen arteko funtzioen berresleitze bat ekarri du, eta baita zenbait lanposturekin lotutako zereginen birdefinitzea ere (koordinatzailea, Bulegoaren burua, Zentroko teknikaria eta idazkari burua), 24-ZTF-MES-4 ekintzan datorren bezala.

Aipatutako EPEari lotutako prozesuek sarri langile-aldaketak sortzen jarraitzen dutenez, lan norabide horri jarraitutasuna ematea proposatzen da 25-ZTF-MES-19 ekintzaren bitartez. Ekintza berri hori dekanotzako TEKAZEL zereginen berrantolatze berri batekin lotuta dago, pisuaren antolamendu eta zerbitzuaren jarraitutasun egokiak bermatzeko.

## **7. PROZESUA. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK.**

Fakultateak bere instalazioak mantentzeko eta etengabe hobetzeko konpromisoa tinko mantentzen du, nahiz eta neurri handi batean aurrekontu erabilgarritasunak baldintzatzen duen.

Barne-kudeaketaren hobetzeak egun indarrean dauden prozeduren berrikusketa sakona eskatzen dute, aplikazioaren bizitasuna, argitasuna eta erraztasuna handitzeko helburuarekin. Berrikusketa horrek, gainera, erabiltzaileen gogobetetzea igo nahi du, eta baita azpiegituren zainketa eta eguneraketa hobea bermatu ere.

Ingurumen-kudeaketarekin lotuta, 2019 eta 2022 urteen artean COVID-19aren pandemiak eragindako ezegonkortasun-aldiaren ondoren sortutako hondakinen bolumenaren murrizketa iraunkorra berretsi da. 2024. urtean ez da urteko 14 toneladen kopurua gainditu, eta horrek aurreko ikasturteetan ezarritako hobekuntza-ekimenak sendo finkatuta daudela adierazten du. Hala ere, hondakinak kudeatzeko protokoloak optimizatzeko lanean jarraitzen dugu, hondakinen ekoizpena ahal den heinean murrizteko helburuarekin.

Laneko segurtasun eta osasunaren arloan, zentroan erregistratutako istilu eta istripuetan hobekuntza garrantzitsu bat nabaritu da. Beherakada horrek esan nahi du aurreko urteetan hartutako neurriak eraginkorrak izan direla. Hala eta guztiz ere, ezinbestekotzat jotzen da adierazle hori etengabe zaintzea hurrengo ikasturteetan, ezbehar-tasa txiki horien jarraitutasuna bermatzeko.

Prebentzio-eremuan hobekuntzarako aurreikusitako ekintza batzuk ezin izan dira burutu aurrekontu-partida espezifiko bat falta zela-eta. Aipatutako ekintzak baliabide ekonomiko egokiak izan bezain pronto burutuko dira.

Azkenik, Autobabeserako Plan berriaren lanketa-prozesua martxan jarri da, zentroko prebentzio eta segurtasuna bermatzeko beharrezko instrumentua dena. Espero da datorren ikasturtean zehar plana onartzea eta ezartzea.

### **8. PROZESUA. EUSKARA ETA ELEANIZTASUNA.**

Ikasleen euskarazko formakuntzak bai ikerketa jardueretan, eta baita Gradu Amaierako Lanetan eta doktore-tesietan ere, maila pozgarriak mantentzen ditu. Hala ere, matrikulatutako ikasleen zifra garrantzitsu baten profil elebiduna kontuan hartuz gero, zenbait titulazioetan hobetzeko tarte nabarmena dagoela identifikatu da.

Euskaraz eginiko kultura- eta dibulgazio-jarduerak ere parte-hartze handia izan dute, eta azken urtean hazkundera izan dute. Hala ere, Fakultatean eremu akademikotik harago euskararen erabilera sustatzeko, estrategia berriak aztertzea beharrezkoa izango da, kontuan hartuta beste ikastetxe batzuetan erabilitakoak ez direla ZTF-FCTn bideragarritzat jo.

Hizkuntza ez-ofizialeko eskaintzari dagokionez, fakultate-ekalan maila nahiko ona da. Gradu gehienetan, gutxienez, 30 ECTS ingelesez daude, edo ingelesezko eta EFC ikasgaien konbinazio bat dute, eta horri esker, hona etortzen diren ikasleek lauhileko oso bat egin dezakete. Hala ere, irakasleen artean ere oraindik badago eskaintza hori zabaltzeko edo hobetzeko ahalmena.

### **9. PROZESUA. KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTE-PROIEKZIOA**

Argitaratutako albisteen bolumenaren bilakaerak argi uzten du Fakultateak gaitasun handia duela edukiak modu jarraitu eta egonkor batean mantentzeko. Jarrera horrek agerian uzten du komunikazio-jardueran konstantzia dagoela, presentzia instituzional erregularra dagoela eta hazkundera iraunkorra proiektatzeko oinarri sendoa dagoela.

Hala ere, beharrezkoa izango litzateke web orritik zabaltzen diren albisteen kopurua handitzea, eta baita komunikabideetan eman den beheranzko joerari arreta jartzea ere. Fakultateak egiten duen jardueraren ikusgarritasuna indartzeko asmoarekin, OIHARTZUNA albistegia martxan jarri da.

Kanpoko erakundeekin egindako hitzarmen eta lankidetzak kopuru handiak ingurunearekin lotura estua, aliantzak sortzeko gaitasun nabarmena eta lankidetzak instituzionalerako estrategia sendotua dagoela berresten du. Ekimen adierazgarrienen artean aurkitzen ditugu EUDEL, EHU-Quantum eta Ziforkrim-ekin eginiko elkarlanak.

Alberto Magno Zientzia Fikziozko Literatura Lehiaketan izandako parte-hartze nabarmenak agerian jartzen ditu lehiaketaren ospea eta errekonozimendua, nazioartean duen garrantzia eta pizten duen interes kultural iraunkorra.

Era berean, garatutako zientzia-dibulgazioko jardueren zifra esanguratsuak Fakultateak eremu horretan duen dinamismoa islatzen du, baita irakasleen eta ikertzaileen inplikazio aktiboa eta agenda zientifiko zabal eta egonkor baten existentzia. Modu berean, Zentroak antolatutako edo abalaturako jardueren bolumen handiak gizarte-proiektzio handia erakusten du.

Ikasleen elkarten kopuru egonkorra ikasleen parte-hartzean jarraitutasuna adierazten du, baita elkartasare finkatua ere. Elkarte horiek, gainera, jarduera-maila handia dute, ikasleen komunitatearentzat interesgarriak diren hitzaldiak, tailerrak eta bestelako ekimenak antolatzen dituzte.

Azkenik, Fakultateko alegazioen, kexen, iradokizunen eta erreklamazioen postontzia (Fakultateak erantzuten du) unibertsitate-elkarteko ekarpenak bideratzeko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko tresna eraginkor, erabilgarri eta moldakorra bilakatu da.

### **10. PROZESUA. EBALUAZIOA, BERRIKUSKETA ETA HOBEKUNTZA.**

Azkeneko ikasturteetako emaitzak ikusirik, ikasleek betetzen dituzten gogobetetze-inkestetako erantzunen tasan gorakada iraunkorra egiaztatu da, 2022/23 ikasturtean % 28'5 izatetik, 2023/24 ikasturtean % 40'85 izatera igaro zen, 2024/25 ikasturtean % 55'07ra iritsiz. Bilakaera positibo hori bereziki esanguratsua da, eta ikasleen parte-hartzea sustatzeko neurri berriak hartzearekin eta sistematikoki aintzat hartu behar diren inkesta guztien definizio argi eta egonkorrekin lotzen da. Horrek erraztu egiten du datuen arteko konparazioa. Halaber, berrikusketa prozeduran zehar Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren jarraipen

eraginkorrerako ekarpenik egiten ez zuen adierazle bat ezabatu da, horrela erabilitako metriken koherentzia eta erabilgarritasuna sendotzeko.


Dirudienez, 2021-2023 denboraldian inkestetan zorro erregistrarako ezarritako protokoloa egokia izan da, eta hori erakusten du azken ikasturteetan izan diren gertakarien kopuru murriztuak; zeinak 2024/25 ikasturtean guztiz desagertu diren. Azken ikasturte honetan zehar, gainera, iraskasleei zuzendutako inkesta prozedura berri bat martxan jarri da. Momentuan soilik masterretan ezarri ahal izan da, baina lanean jarraitzen dugu Fakultateko beste titulazioetara ere iristeko. Iritzi-inkesta horien erantzunak pozgarriak izan dira titulazio guztietan, puntuazio minimoa 4,0 izanik 5,0tik. Era berean, Docentiaz-en bitartez ebaluatutako irakasleen progresioak modu egokian aurrera jarraitzen du.

2017-2023 Plan Estrategikoaren amaierak eta ondoren 2024-2028 aldirako Zentroaren Plan Estrategiko berria onartzeak beharrezkoa egin dute sistemaren adierazle-multzoa berrikustea eta optimizatzea. Horren helburua lerro estrategiko berriekin lerrotatzea eta Fakultateak garatutako kudeaketa modu fidagarrian islatzen duela ziurtatzea da. Berrikusketa hori 2024/25 ikasturtean osatu da, eta sistemaren prozedura bakoitzerako adierazle egokiagoak ezartzea ahalbidetu du.


## EMAITZA NAGUSIAK

### GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK


**Gutxieneko sarbide-nota**




**Graduen okupazioa**




### Egokitzapen-tasa




### Errendimendu-tasa




### Uzte-tasa



### Ikasketak amaitu dituztenen kopurua




### Enplegu-tasa




### MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK


#### Masterren okupazioa



#### Errendimendu-tasa



## Ikasketak amaitu dituztenen kopurua



## SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	24/25	23/24	22/23	21/22	20/21
2.6j Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	29,87	28,72	24,79	23,89	17,97
2.7d Curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	261	237	265	222	265
3.2c Erasmus Mundus ez diren masterretako batez besteko betetzea	85,39	86,67	57	66	74,7
4.1d IIParen ISI argitarapenen ratioa	1,12	0,92	1,04	1,18	1,21
4.1i Defendatutako Tesien kopurua	91	112	104	73	82
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoreen %a	77,67	82,57	85,37	86,6	86,17
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren %a	68,93	69,01	69,3	70,57	72,82
6.1b Irakaskuntza jardueri eskainitako aurrekontu arruntaren %a	43,48	48,76	46,62	43,79	49,95
7.2c Acciones de mejora realizadas en prevención, seguridad y medio ambiente	12	9	9	12	15
8.1c Euskaraz egindako GrALen %a	36,67	34,23	33,26	39,55	37,52
8.2e EFC irakasgaien kopurua	102	105	77	74	71
9.2c Kanpoko erakunde eta instituzioekin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	19	10	14	107	15
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIParen %a	68,96	65,64	61,19	56,54	53,05

## EKINTZAK

### 2024/25 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK

- 2024-2028 aldirako Zentroko Plan Estrategiko berria definitzea eta martxan jartzea.
- Mugikortasuna sustatzeko dauden programei buruz egiten den hedapena zabaltzeko aukera aztertzea.
- IX. Ikerkuntza Jardunaldien eta ZTF-FCTren Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko II. Jardunaldiaren antolakuntza.
- Idazkaritza berrantolatzea 2019-2020-2021-2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren ondorio gisa.
- Euskaraz ikasten duten ikasleek GRaLa beste hizkuntza batean egitearen arrazoiak aztertzea.
- Zentroan ematen diren titulazio ofizialetako tituludunak lan munduan sartzeari buruzko informazioa Zentroko webgunean txertatzea.
- KBBS adierazleen batera errebisatzea.

8. CEGek eta CAMEk proposatutako hobekuntza-ekintzak.

#### **2025/26 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK**

1. Ikasketa-planetan graduko titulazioetan egin beharreko aldaketen proposamena jasotzea, eguneratzeko.
2. Adimen artifizialaren eremuari lotutako graduondoko titulazio bat eta Latinoamerikarekin lankidetzan beste bat eskaintzea bideragarria ote den aztertzea.
3. Graduen hautazkotasuna aztertzea, Euskara eta Hizkuntza Plangintzako Errektoreordetzaren irizpide berriak oinarri hartuta.
4. Irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerari aplikatutako Adimen Artifizialari buruzko prestakuntza eskaintzea.
5. Dekanotzako TEKAZEL berrantolatzea, langileak aldatzeko barne-prozesuen ondorioz.
6. Lokalekin, zerbitzuekin eta gorabeheren jakinarazpenekin lotutako eskabideak kudeatzeko prozedura hobetzea eta eguneratzea.
7. Graduko titulazioen ingelesezko prestakuntza-eskaintzari buruz Zentroaren web orrian eskaintzen den informazioa zabaltzea.
8. Estrategia berriak ezartzea, mugikortasun ikasleak erakartzeko.
9. Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa gela berri bat irekitzea, egoitza Fakultatean izanik (ZikForKrim).